Azkenik, jakin behar dugu irakurriaren ulermena zerbait konplexua dela eta beraren barnean bost prozesu desberdin aurkitzen ditugula: informazioa bilatzea edo berreskuratzea, ulermen globala, interpretazioa garatzea, testuaren edukiaren gaineko hausnarketa eta testuaren formako gaineko hausnarketa. Prozesu bakoitzean gauza desberdinak egingo dira eta oso garrantzitsua izango da eskolan hauek lantzea.

2. taula. Irakurketaren prozesuak

Informazioa bilatzea edo berreskuratzea	Ulermen globala	Interpretazioa garatzea	Edukiaren hausnarketa	Formaren gaineko hausnarketa
Ageriko informazioa bilatu	Testuan funtsezkoak den informazioa atera.	Ideien arteko erlazioa ezarri eta testua modu logikoan ulertu	Testuaren baieztapenak ebaluatu. Dakigunarekin egiaztatu	Testuaren ezaugarri linguistikoak ebaluatu.

Irakurketaren gaitasunarekin jarraituz, Nafarroako Curriculumak (2007), irakurketa idatzizko hizkuntza erabili ahal izateko kodea interpretatzen eta ulertzen ahalbidetzen digun gaitasuna dela irakurketa zehazten du. Gainera, irakurketa atseginarekin iturri dela, bestelako inguruneak, hizkuntzak eta kulturak ezagutzea bidea dela eta fantasiaren eta jakinduriaren sorburua dela eta horrek guztiak komunikatzeko gaitasuna mantendu eta hobetzeko laguntza ematen duela esaten du.

Berriki onartu egin den hezkuntzaren legea berriari, LOMCE, irakurketa munduaren ezagutza, norbanakoaren ezagutza eta gainerakoaren ezagutza eratzen laguntzen diguten prozesu kognitiboaren tresna bat dela azaltzen da. Tresna honek idazketarekin batera gure bizi osorako erabilgarriak izango zaizkigun ezagutzak eskuratzen lagunduko digu. Irakurketaren helburua, zailtasun eta genero ezberdineko testuak ulertzean datza, ondoren ikasleek ideia ezberdinak eratu dezaten eta horrela, pentsamendu kritiko eta sortzailea osatu dezaten. Testu bat ulertzeko, irakurketak estrategia desberdinak martxan jartzea inplikatzeko da. Estrategia horiek, klasean landu beharko dira eta bizitzaren esparru desberdinetan eta irakurketa mota desberdinetan islatu beharko dira: irakurtzea informazioa eskuratzeko, irakurtzea hizkuntza bera ikasteko eta gozamenerako irakurtzea.

Horrela ba, ikusten den bezala, irakurketa idatzizko kodea deskodifikatzen laguntzen digun prozesu kognitibo konplexu bat da eta prozesu hau arrakastatsua izateko ezinbestekoa izango zaigu elementu guztiak behar bezala funtzionatzea. Prozesu horrek ongi funtzionatzen badu testuaren eta irakurlearen arteko elkarreaginez, testua bere osotasunean ulertu ahal izango dugu eta jakintza berriak eskuratu, gozatu eta ikasten dugun bitartean.

Praktikan, eskoletan irakurtzeko gaitasuna egunero lantzen da eta batzuetan espreski astean saio batean. Kurtsoaren arabera landuko diren edukiak desberdinak izango dira: lehendabiziko zikloaren lehendabiziko mailan helburua bereziki idatzizko kodea bereganatzea izango da eta bigarrenean, aldiz, arintasunari eta ulermenari garrantzia emango zaie, betiere irakurketaren inguruko gozamenak sustatuz. Beraz, lehendabiziko ziklo honetan, irakurketaren lehendabiziko pausuak emango dira eta irakurketa saioak helburu hauek

lantzeko erabiliko dira. Bigarren zikloan, lehendabiziko zikloan ikasitakoa hobetzea bilatuko da eta horretarako arintasuna, ulermena eta intonazioa lantzen jarraituko dute ahalik eta hobekien irakurri ahal izateko.

Hirugarren ziklotik aurrera irakurketa askoz ere bereganatuagoa egongo da baina, hala ere, astean ordu batez irakurketa landu egingo dute eta testu desberdinak irakurriko dituzte ordu horretan. Irakasle bezala, ezinbestekoa izango da gure klasean eta ikasleengan irakurketa sustatzea, ziklo bakoitzean dauden helburuak lortu ahal izateko. Horretarako, lehen aipatutako irakurketa saioa oso baliagarria izango zaigu eta bertan gure ikasleekin egokitutako testu desberdinak landu ahal izango ditugu.


1.3.1.Lankidetzako metodologiak

Arestian aipatu bezala, lankidetzako metodologia ikaskuntza kooperatiboan oinarritua dagoen metodologia bat da. Metodologia honek ikasle kopuru txikiko taldeen erabilera didaktikoa du oinarri bezala. Taldeka lan egiten da ikasleen arteko interakzioa ahalik eta gehien probestu nahi delako eta, aldi berean, guztion ikaskuntza handitu egin nahi delako. Aplikatuko den metodologiaren arabera, talde horiek bi, hiru edo gehiagoko kideak izango dituzte barne. Taldekide horietako bakoitzak ardura bikoitza izango du: alde batetik, irakasleak esaten diena ikastea eta, bestetik, talde horretako gainontzeko kideei hori bera ikasten laguntzea. Beraz, taldekideek bere ikaskuntzaz gain bere taldeko gainontzeko kideen ikaskuntzaz ere arduratu beharko dute.

Talde hauek horrela lan egitean bi helburu nagusi izaten dituzte: hezkuntza edukiak ikastea eta taldeka lan egiten ikastea beste eduki bat izango balitz bezala. Horrela ba, ikasleak gai bakoitzean ematen diren edukiak ikasi beharko dituzte (irakurketa, ingurunea...), baina horretaz gain ere taldeka lan egitea beste eduki bat bezala ikasiko dute, hau da, taldean lan egiten ikasi beharko dute ere. Horregatik, taldekatze huts bat izatetik, ikasteko eta irakasteko taldekatze bat izatera pasatu beharko da.

Klasean taldean lan egiteko modu hau aurrera eramateko hiru esparru desberdinetan esku hartu beharko dugu (Pujolas, 2008): esku hartzea taldea

kohesionatzeko, lan taldea ikasteko baliabide bezala eta lan taldea hezkuntza eduki bezala.



7. irudia. Taldean lan egiteko esku-hartu beharreko hiru esparruak

Taldea kohezionatzeko esku-hartzean klasea pixkanaka pixkana taldean lan egiteko prestatzea izango da, hau da, banakatik lan egitetik taldean lan egitera irakatsi beharko diegu. Horretarako, oso baliagarria izango zaigu tutoretza saioa. Saio horretan dinamika desberdinak landuko dira taldearen kontzientzia sortzen has daitezten.


Bigarren esku-hartzean, behin eta talde bezala lan egiten ikasi, orain talde lana elkar laguntzeko baliabide bezala ikusi behar dute eta horrela, aldi berean, edukiak hobeto ikasteko eduki bezala. Orain egitura kooperatiboa eratu behar da, hau da, ariketa bat egin bitartean ikasleak elkarri laguntzea eta elkarrekin kolaboratzea lortu. Egitura hauek ezinbestekoak dira taldean lan egitearen inguruan egindako prestakuntza horren ondoren, izan ere, hauen erabilerarekin bakarrik lortuko dugu talde bateko taldekide guztien interakzioa elkarrekin lan egiteko orduan. Beraz, estruktura kooperatibo hauek, izenak esaten duen bezala, eduki bat lantzerako orduan ikasketa prozesuan parte hartzen duten pertsonak elkarrekin lan egiten eta elkarri laguntzen lan egitea bermatzen du.

Azkeneko esku-hartzeari dagokionez, taldean ondo lan egin dezaten ezinbestekoa da ikasleak horrela lan egiten ikas dezaten eta guk irakasle bezala beste hezkuntza eduki bat izango balitz bezala irakastea. Horrela ba, taldean lan egitea ez da bakarrik metodo bat edo hobeto lan egiteko baliabide bat, baizik eta eduki bat ere bada. Eduki bat zeina, modu sistematiko batean irakatsi behar zaie gainontzeko eduki kurrikularrak irakasten diren bezala. Izan ere, talde lana eduki bezala irakasten baldin badugu, ikasleek gehiago ikasiko dute eta emaitza positibo gehiago izango dituzte. Beraz, gure ikasleei talde lanean lan egiten irakasten diegunean beraien helburuak zehazten lagundu behar diegu eta talde bezala lan egiten, helburu horiek lortzeko. Gainera taldean lan egiteko erabili behar diren gizarte trebetasunak erakutsiko dizkiegu ere (ikaskideak entzun, ahots tonu leuna erabili, lanak bukatu...).

Pixkanaka-pixkana talde hauek ikasleak lan egiteko erabiltzen dituzten ezinbesteko unitateak bihurtzen dira. Ez dira ohiko taldeak, baizik eta talde egonkorrak dira, zeinak irakaslea esaten duenean batera ikasten duten. Ikasleak zenbat eta gehiago horrela lan egin, orduan eta gehiago ezagutzen dira talde bezala eta pertsona bezala. Bestetik, ikasketa honen sekuentziazioak taldean egingo diren planifikazio desberdinak zehaztuko ditu. Planifikazio bakoitzean talde bakoitzak talde plan bat egingo du, hau da, dituzten helburuak zehazten dituen txosten bat da. Gero, denbora bat pasata, taldea elkartuko da helburuak lortu dituzten ikusteko eta balorazioa egiteko.

Beraz, horrela lan egiteko ezinbestekoa izango da taldeak egonkorrak izatea, denbora luzez egotea talde plan desberdinak burutzeko eta horrela aldatu behar dena, alda dezaten. Poliki-poliki planifikazio desberdinei esker taldea hobetzen joango da eta beraien lan egiteko modu eta elkarrekin erlazionatzeko modua asko hobetuko da.

Irakaslearen paperari dagokionez, irakasleak taldekide bakoitzak egin behar duen lana ezagutu dezan bermatuko du, lanak eta erabiliko diren materialak zehaztuko ditu, arazo gehien dituzten taldekideen parte hartzea bermatuko du, talde bakoitzaren jarraipen bat egingo du, taldeak eta espazioak antolatuko ditu... Beraz irakasleak paper garrantzitsu bat izango du ikaskuntza kooperatiboa sustatu eta bermatzeko orduan.



8. irudia. Irakaslearen papera ikaskuntza kooperatiboan


Behin eta taldeak martxan jarrita eta gauzak behar bezala eginez, lortuko diren emaitzak handiak izango dira. Alde batetik, ikasleen gaitasun intelektualak eta sozialak hobetuko dira eta, aldi berean, haien errendimendu akademikoa modu nabarmenean hobetuko da. Ikaskuntza honekin ere ikasleen jokabide positiboa handituko da eta ikasleek argudiatzen ikasten dute ere. Bestetik, ikasleei autoestimua eta motibazioa handitu egiten zaie. Gainera, ikasleek besteen azalpenak entzuten ikasten dute, beste ikaskideekin eztabaidatzen dute eta gainontzeko ikasleak motibatzen dituzte.

Honela ba, lankidetzako metodologia garatzeko ezinbestekoa da orain arte azaldutakoa betetzea. Filosofia eta ezaugarri horietan oinarrituz metodologia desberdinak aurkituko ditugu, hala nola: proiektuen bidezko ikaskuntza, tutoretza pertsonalizatuak, lankidetzazko ikasketa, arazoetan oinarritutako ikasketa... Kasu honetan, guztietatik bi lankidetzako metodologietan oinarrituko naiz: berdinen arteko tutoretza ("Bikoteka Irakurtzen") eta irakurketa dialogikoa.

- *“Bikoteka irakurtzen”*

Ikasleekin eta familiekin lantzeko eta irakurriaren ulermena hobetzeko berdinen arteko tutoretza programa da eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Hezkuntza Zientzia Institutuak bultzaturikoa. Berdinen arteko tutoretza programa bikotearen lanean oinarritzen da. Bikote hauetan inor ez da bestearen irakasle profesionala, baina bi partaideek ikasten dute, egituratuta dagoen jarduera baten bidez. Tutore papera duenak irakatsiz ikasten du; bestalde, ikasle papera hartzen duenak bestearen laguntza egokitua eta jarraitua jasotzen du. Programak ikasleen arteko tutoretza eta familia tutoretza konbinatzen ditu.

Programa hau hiru osagai nagusiekin egituratuko da (Duran, 2011): berdinen arteko tutoretza, familien inplikazioa eta irakurriaren gaitasuna eta ulermena.



9. irudia. “Bikoteka Irakurtzen” programaren osagaiak

Lehenengoari dagokionez, berdinen arteko tutoretza, ikasle-bikoteak egitea oinarri duen lankidetzazko ikaskuntza-metodo bat da. Oso metodo erabilgarria da eta eraginkortasuna bermatzeaz gain, errendimendu akademikoak gora egiten du, porrota tasa jaisten da, gizarte trebetasunak hobetu egiten dira... Tutoretza hau “Bikoteka Irakurtzen” programan erabiliko den tutoretza izango da. Ziurrenik, ikasleek ez dute tutoretza hau eta lan egiteko modua ezagutuko,

beraz, ikasleei beharrezko prestakuntza emango zaie. Tutoretza hau bikoteak eratuz antolatuko da eta 24 saioen bitartean landuko da.

Familiaren inplikazioa, bigarren osagaia, oso beharrezkoa izango da programa honen garapenean. Izan ere, parte hartze horri esker bere seme-alaben eskola arrakasta hobetzea eragingo du eta era berean, hobera egingo du ikastetxearen irakaskuntza-kalitateak. Gainera, familiaren parte hartzea ahalik eta handiena izatea bilatuko da eta gurasoek irakasle eginkizunetan parte hartuko dute euren semen alabak etxetik lagunduz. Horretarako, oso garrantzitsua izango familia betiere laguntzeko prest egotea eta jarraibideak ematea.

Azkeneko osagaia irakurtzeko gaitasuna eta ulermena da. Gaitasun hau oinarrizko gaitasun bat da eta ezinbestekoa da eskolan arrakasta lortzeko. Beraz, irakurtzen dugunean irakurtzeaz gain, testua ere ulertu egin behar da. Programa honetan, betiere, benetako ulertze egoerak sortzen saiatu behar dugu eta horretarako testu desberdinez baliatuko gara. Testu horiek hiru irizpide kontuan hartuz aukeratuko dira (konplexutasuna, adina eta interesa) eta horien bitartez irakurtzeko gaitasuna eta ulermena bultzatzen saiatuko gara.

Programa hau, lehen esan bezala, irakurketan oinarrituta dago eta helburu argi bat du: ikaslearen eskola arrakastan hain garrantzi handikoa den irakurketa gaitasuna hobetzea. Hala ere, programa honek beste helburu batzuk ere barne hartzen ditu: joera inklusibo argiko metodologiak irakasleen esku hartzea, euskara irakasteko didaktika berriak garatzea, ikaslearen irakurmena eta, batez ere, irakurritakoa ulertzeko duen gaitasuna hobetzea, ikasleen lankidetzahalmena sustatzea eta azkenik, familiak eskola-eginkizunetan gehiago inplikaraztea. Horretaz gain, "Bikoteka Irakurtzen" programak hizkuntza komunikazioaren gaitasuna lantzeaz gain, ikasten ikasteko gaitasuna, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna, gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna eta norbere autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna ere landuko ditu. Horrela ikaslearen ikaskuntza ahalik eta osatuena izango da.

Irakasleak, programa hau lantzerako orduan, aniztasuna zerbait positibo eta aberasgarri bezala ikusi behar du. Hau da, tutoretza honen bitartez irakasleak

aukera paregabea ikusi behar du aniztasuna modu positiboan biziartzeko. Baina irakasleriaz gain, programari benetako etekina ateratzeko ezinbestekoa izango da familiaren parte hartzea. Familiek laguntza zuzena eskaintzeaz gain, konfiantzazko harreman bat eratzeko aukera emango du esparru akademikoan.

Horrela ba, programa martxan jartzeko ezinbestekoa da lehenik bikoteak eratzea (Duran, 2011). Bikoteak eratzeko orduan adin edo maila desberdineko ikasleak edo adin edo maila berdineko ikasleak erabiliko ditugun zehaztu beharko dugu. Horren arabera, irizpide desberdinak kontuan hartuko ditugu: adin edo maila desberdinetakoan direnean, tutorearen eta tutorizatuaren arteko ezagueretan edo gaitasunetan dagoen aldea ez da handiegia izan behar, hau da, gehien dakien tutorea gehien dakien tutoratuarekin eta horrela hurrenez hurren.

Maila bereko ikasleei dagokionez, kasu honetan hizkuntza-gaitasunaren arabera antolatuko dira eta tutoratu eta tutorearen eginkizunak aldatzen joango dira. Honetan komeni da bikotekideen gaitasun-maila ahalik eta antzekoena izatea. Bikote mota bat edo bestea eratzean ahalik eta bikote aldaketa gutxien egitea da gomendioa eta hauek egiterakoan behar adina denbora ematea ikasleek bikotekide berriarekin lan egiten ikas dezaten.

Bikoteak eraten direnean, sortzen diren bikote kopurua ez da oso garrantzitsua, nahikoa da ikasleen kopurua bikoitia izatea bikoteak egin ahal izateko. Ikasle bat faltatzerakoan bi gauza egin ahal izango ditugu: alde batetik, bakarrik geratu den ikaslea beste bikote batekin jartzea edo, bestela, bakarrik gelditu den ikaslea bere kasa aritzea eta jarduera orria bukatzean gogoeta egitea eskatu jarraitu duen lanaren prozesuaren inguruan. Bikoteka lan egingo den ikasgelari dagokionez gomendagarria da bikoteak bertan lan egiteko espazioa nahikoa izatea baina aldi berean bikotekideak ahalik eta gertuen egotea. Bertan ere kontsultatzeko materiala egotea oso gomendagarria da.

Familiei dagokienez, eskolak programa aurkeztu beharko die eta horren abantailak zeintzuk diren azaldu ere. Eskola berak aukeratu beharko du zein den modurik onena familiei programa ezagutarazteko eta behar izatekotan erabiliko dituen laguntza elementuak. Gainera, eskolatik ere familiei programa etxean landu dezaten animatu beharko zaie eta horrela ikaslea tutorizatuaren

papera egiten duen bitartean, familiako kide batek tutorearen papera egin dezan. Horrela eskolaren eta familiaren arteko elkarlana sustatuko da.

Baina programa honen garapenarekin behar bezalako arrakasta lortzeko, ezinbestekoa izango da ikasleek eta familiekin aldez aurretiko prestakuntza bat egin dezaten. Ikasleei dagokienez, prestakuntza egiten hasi baino lehen bikoteak eginda egotea gomendatzen da prestakuntza batera egin dezaten. Prestakuntza saioak hiru izango dira eta programaren oinarriak ikastea, jarduerak ikastea eta behar direnekin praktikatzea, laguntza materiala erabiltzen ohitzea eta bikotekidea ezagutzea izango da hauen helburua. Familiekin dagokionez, prestakuntza saio bat egingo da programaren aspektu desberdinak aurkezteko eta tutoreak diren familia kideei beharrezko laguntza emango zaie betiere ziur sentitzeko programa etxean lantzeko orduan.


Behin eta beharrezko prestakuntza eginda dagoela tutoretza saioei hasiera emango zaie. Astero hogeita hamar minutuko bi saio egingo dira hiru hilabetez (24 saio). Saio horietan tutorea tutoratuaren ezker aldean jarriko da eta gune eroso bat bilatuko da kideak lan egin dezaten. Saioari hasiera emateko irakasleak jarduera orri bat banatuko dio tutoratuari, izan ere tutoreak aurreko egunetik izango du etxean prestatu behar izan duelako.

Saioaren lehendabiziko 15 minutuetan jarduera irakurketaren inguruan garatzen da eta irakurri aurreko galderak egin eta irakurketari ekin beharko diote. Behin eta galderak eginak izan, irakurketarekin hasteko tutoreak edo irakasleak lehendabiziko irakurketa egingo du. Bigarren irakurketa, bi ikasleek batera egingo dute. Irakurketa horretan tutoreak intonazioa, abiadura eta ahoskera zehaztuko ditu eta tutoratuak jarraituko dio. Azkeneko irakurketak ikasle tutoratuak irakurriko du eta tutoreak PPP (pauza, pista eta ponderazioa) erabiliko du. Metodo horrekin, ikasle tutorea ikasle tutoratuaren sorbaldan eskua jarriko du eta tutoratuak irakurtzean hutsegite bat egiterakoan esango dio edo eskuarekin kolpetxo txiki bat emango dio eta segundo batzuk itxarongo dira, hutsegitea zuzen dezan. Ez badu zuzentzen, pista bat ematen zaio eta oraindik zuzendu gabe jarraitzen badu azkenean aukera zuzena esango zaio.

Saioaren hurrengo 15 minutuetan testuaren ulerkuntzari pausu emango zaio eta horretarako irakurri ondorengo galderari erantzun beharko diete. Informazio

hori batzuetan testuan bertan egongo da baina zenbaitetan interpretazioak edo gogoetak egin beharko dituzte. Jarduera hauek ahalik eta zabalenak izango dira eta galderek mota desberdinetakoak izan beharko dute.

“Bikoteka Irakurtzen” saioarekin bukatzeko azken minutuak tutoratuak testua azkeneko aldiz irakurriko du irakurketa sakon bat eginez eta esanahia aurkitzeko balio izango du. Beraz, hau izango litzateke ohiko saio baten antolaketa. Hala ere, denbora aurrera egin ahala bikoteei denbora nahi duten bezala antolatzen utzi ahal diegu, baina betiere saioaren egitura errespetatu beharko dute.




10. irudia. Irakurketa saioaren antolakuntza

Ohiko saio hauetaz gain, saioen egitura beste 2 zati gehiago osatuko dute: bikotearen autoebaluazioa eta jarduera osagarriak. Bikotearen autoebaluazioa 15 egunetan behin egingo da eta bertan hobetu dutena eta jaso dituzten trebakuntzak aztertuko dituzte. Horretaz gain, ikasle tutorearen jarduna ere ebaluatuko da eta helburuak zehaztuko dira. Betiere autoebaluazio hau bien artean osatuko da. Jarduera osagarriak monotonian ez erortzeko egingo diren jarduerak izango dira. Jarduera hauek eratzeko, jarduera orrietan oinarritu gaitzke eta gehiago sortu.

Jarduera orriak, irakaslegoak ez ezik, ikasle tutoreek eta familiek ere eratu ahal izango dituzte. Ikasle tutoratuek bi jarduera orri egingo dituzte eta horietatik bat gainontzeko ikasleekin partekatuko da eta bestea bikotekideak bakarrik erabili ahal izango du. Horrela ikaslea motibatzea lortuko da. Familien kasuan jarduera orriak prestatzerako orduan 3 aukera emango zaizkie: familiek berak egitea, ikasle tutoreak ikasgelan egitea eta bertan erabili gabeko orriak baliatzea eta, azkenik, haur literaturako liburuak erabiltzea jarduera orriak prestatzeko. Horrela ikasleen motibazioa handitzea lortuko dugu eta familiaren kasuan bere interesa eta parte hartze handitzea.

Hasieran esan bezala, programa honen helburu nagusia irakurketaren gaitasuna hobetzea da eta horregatik ebaluazio eta jarraipen bat egin beharko zaizkie bikoteei. Programa martxan jarri baino lehen, bikoteak egiteko hasierako ebaluazio bat egingo da. Horretan, hizkuntzaren ezagutza maila kontrolatuko da eta horren arabera bikoteak eratuko dira. Behin martxan jarrita bikoteak hamabost egunetan behin autoebaluazio bat egingo dute eta, lehen esan bezala, bertan hobetu beharrekoa, lortu dena eta ikasle tutorearen jarduna ebaluatuko da.

Horretaz gain, irakasleak ere jarraipen bat egin beharko du eta horretarako erregistro orri bat erabiliko du. Irakasleak ere tutoreak egindako bi jarduera orriak erabiliko ditu ebaluatzeko. Bikoteak ebaluatzeko helburuarekin ere saioetako batzuk jarduerak jarraipeneko edo prestakuntzako ebaluazioa egiteko erabili ahalko dira. Saioak amaitzerakoan ere, ikasleek dossier batean egindako jarduera orriak eta erantzunak eman beharko dizkiote irakasleari. Azkenik, etxean egin denean programa familiak ematen duen informazioa jardueraren kalifikazio orokorretan jasoko da.



11. irudia. "Bikoteka Irakurtzen" programaren ebaluazioak

Programa hau laguntza premia bereziak duten ikasleekin landu daitekeen programa bat da ere. Kasu hauetan, ikasle tutoreekin lan egin beharko da. Irakasleak ikasle tutoreari duen egoera azaldu beharko dio eta horretaz gain tolerantzia, enpatia eta pazientzia bereganatzen lagundu beharko dio. Gainera, laguntza eta orientabide espezifikoak eskaini beharko dizkio ikasle tutoreari. Irakasleak ere jarduera orriak egokitzen saiatu beharko da zailtasunak mailakatuz, orriak sinplifikatuz edo, behar izanez gero, bikoterako orri espezifiko batzuk sortuz. Ikasle hauekin bereziki, familiaren inplikazioa oso garrantzitsua izango da. Beraz, familia ahal den neurrian programa etxean gauzatzera bultzatu beharko dugu. Horrela ikasleen emaitzak hobetzea lortuko dugu ere.

Horrela ba, gure ikasleen artean irakurketa garatzea nahi baldin badugu horrelako programa batean oinarritu gaitezke. Baina behar bezalako arrakasta izateko ezinbestekoa izango da beharrezko formakuntza bat izatea irakasle, ikasle eta familien artean, material egokituak eta egokiak lantzea, bete behar diren ezaugarriak eta irizpideak ondo betetzea eta betiere familien parte hartzea bermatzea eta sustatzea. Horrela, ikasleen irakurketa maila hobetzea eta motibatzea lortu egingo dugu.

- *Irakurketa dialogikoa*

Irakurketa dialogikoa ikaskuntza dialogikoan oinarrituta dagoen metodo elkarrengarekiko bat da. Metodo hau irakurketa garatzeko eta bereganatzeko erabiltzen da. Esan bezala, irakurketa hau ikasketa dialogikoaren printzipiotan

oinarrituta dago eta honakoak dira (Aubert, 2008): berdintasunezko elkarrizketa, kultur adimena, eraldaketa, zentzua sortzea, solidaritatea, dimentsio instrumentala eta desberdintasunen berdintasuna. Ikaskuntza honen printzipioetatik garrantzitsuenak motibazioa eta zentzuaren sorrera, testuen ulermen partekatua eta dimentsio instrumentala izango dira.

Horrela ba, irakurketa hitzen eta idatzizko testuei esanahia ematen dien prozesu bat bezala definitu daiteke. Prozesu hau ez da gelan ematen bakarrik, baizik eta haurren eta beste pertsona batzuen artean elkarreragina ematen den edozein momentutan gertatzen da. Horretan oinarrituz, haur batzuk besteek baino elkarreragin handiagoa jasoko dute irakurketaren gainean.

Ikuspegi honen funtsa helduen eta haurren arteko baterako parte-hartzea da. Parte-hartze horri esker testuinguruko baliabideak optimizatu egiten dira eta irakurketaren ikaskuntza instrumental hobea lortzen da eta egoera baztertzailen aldaketaren alde egiten da. Programaren helburua, betiere, irakurketa ahalik eta eremu gehienetan eta pertsona gehiagorekin lantzea izango da.

Testuaren eta irakurlearen artean sortzen den erlazioari esker testuan agertzen den informazioa aztertzen, interpretatzen, baloratzen, ulertzen eta ezagutza berriak sortzen laguntzen du. Gainera heldu, haur eta testuaren artean ematen den elkarreraginari esker irakurketa lantzeaz gain, irakurketarekiko zaletasuna bultzatzen da haurrak motibatuak daudelako.

Irakurketa dialogikoa lantzeko tertulia dialogikoko saioak egiten dira. Saio hauen helburuak, besteak beste, honakoak dira: ikasle guztien artean irakurzaletasuna bultzatzea, irakurketaren bidez besteekin elkarrizketak sortzea, irakurketa ulermena hobetu, irakurketaz gozatu, ikasleak motibatu eta ilusioz bete, besteekin elkarrizketa sortu... Beraz, saio hauen bidez irakurketa lantzeaz gain beste gauza asko gehiago lantzen dira ere.

Tertulia bat egiterako orduan, saioa hasi baino lehen, ikasleei tertulia literarioak zer diren azalduko zaie: nolakoa den irakurketa era hori eta norbanakoen iritziak zer garrantzi duen eta liburu klasikoak zer diren eta zergatik irakurtzen diren. Horretaz gain, irakurri ondoren egin beharko duten lana azalduko zaie,

hau da, ideia edota esaldi esanguratsuak aukeratu, koadernoaren erabilera azaldu eta aukeratutakoa apuntatuko beharko dutela. Honekin batera tertulia zergatik egingo den esango zaie eta tertuliaren azken zatian egingo den eztabaidaren inguruan ere hitz egingo zaie ikasleei.

Behin eta azalpena eginda, denen artean aukeratuko dute irakurriko den liburua (ikasleak txikiak direnean irakasleak aukeratuko du irakurriko den liburua). Liburua aukeratu ondoren, etxean edo eskolan irakurriko duten erabakitzeko garaia izango da. Erabaki hori irakasleak hartuko du eta horretarako ikasleen gaitasunetan oinarrituko da. Gainera, gurasoen inplikazioa sustatzen saiatu beharko da. Azkenik, saio bakoitzeko zenbat orri irakurri beharko dituzten erabakiko da. Irakasleak ikasleekin adostu beharko du, betiere ikasleen gaitasunen eta ohituren arabera.

Beharrezko aurre azalpenak eginda, saioari hasiera emango diogu. Horretarako, ikasle guztiek beren txanda izango dute aukeratutakoa edo idatzitakoa adierazteko. Ikasle baten batek ez badu ezer aukeratu eta ez badu lanik prestatua, ez da ezer gertatzen. Hala ere, beti kontuz ibili beharko dugu egoera hori ez errepikatzeko.

Ikasle bakoitzari txanda iristen zaionean, aukeratu duen esaldia, paragrafoa edota hitza zergatik aukeratu duen adierazi beharko du. Guztiek txanda betetzen dutenean, eztabaida edo txanda libreari hasiera emango zaio. Eztabaida libre honetan guztiek hitz egitea ziurtatu behar da eta horretarako irakasleak koaderno batean horren jarraipena egingo du eta ikasle baten batek parte hartu ez badu kontuan hartuko da eta hurrengo saioan parte hartzera bultzatuko da. Bestalde, hitz egiten duten ikasleei hitz egiteko moduak zaintzeko eskatuko zaie eta betiere errespetuz hitz egiten eta gainontzekoak errespetatuz.

Behin guztiak hitz egin ikasleek azaldutako gaien inguruan adostasunak bultzatu daitezke, baina ados jartzerik lortzen ez bada, ez da ezer gertatzen. Betiere garrantzitsuena parte hartzea eta irakurritako testuaren inguruan gogoeta egitea izango da. Tertuliari amaiera emateko hurrengo egunean irakurriko diren orriak zehaztuko dira eta hurrengo egunean prozesu berari ekingo zaio.

Tertulia hauetan irakasleak proposatu eta adostuko du saio bakoitzean zenbat orrialde irakurriko diren. Gainera, tertulian hitz egiteko txandak emango ditu, eztabaida gidatuko du, ikasleen arteko adostasunak bultzatuko ditu eta ikasten ari diren beste gai edo arlo batzuekiko loturak sortzen ahaleginduko da. Ikasleei dagokienez, tertulia dialogikoak ere eragina izango du haiengan. Beste gauza batzuen artean beraien iritzia partekatuko dute, sentipenak eta pentsaerak trukatu dituzte, irakurketa partekatu eta garatuko dute eta oinarrizko konpetentziak ere garatuko dituzte.

Irakurketa dialogikoan oinarritutako tertulia hauei esker ikasleak askoz ere motibatuak egoten dira eta irakurketarenganako gustua handitzen dute. Etxean ere familiak programaren zati bat bihurtzen dira eta partekatu egiten dute eta azkenik irakasleak irakurketa sustatu egiten du eta elkarrekintzaren ondorioz bere ikasleen aurrerapenak sumatzen ditu.

Beraz, nahiz eta bikoteka irakurtzen landu edo irakurketa dialogikoa helburutzat betiere gure ikasleen artean irakurketa sustatzea izan beharko dugu. Horrela ikasleen irakurketa maila hobetzea lortuko dugu motibatuak eta lan egiteko gogoarekin lan egiten duten bitartean.

1.4. Praktikarekin harremana

2006. urtean onartu egin zen LOE hezkuntza legeak, bere gain aldaketa eta berrikuntzak ekarri zituen bere aurrekariekin alderatuz. Lege berri honekin ikasketak ez unibertsitarioak (Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Goi mailako zikloak, Hezkuntza irakaskuntza, Erdi mailako zikloak, Arte plastikoa eta diseinu, Arte-musika, Hezkuntza berezia) Espainiarako egoerara egokitzea bilatzen zen baina errespetua, tolerantzia, oportunitatea, kalitatea... ahaztu gabe.

Lege honekin, eman ziren berrikuntzetatik azpimarratzekoa da etapa guztietan ikasleak garatu beharko dituen oinarrizko zortzi gaitasunen zehaztapena. Oinarrizko zortzi gaitasunak honakoak dira: hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna, matematikarako gaitasuna, mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarrekintzaren aritzeko gaitasuna, informazioaren tratamendua eta gaitasun

digitala, gaitasun soziala eta herritartasuna, arte eta kultur gaitasuna, ikasten ikasteko gaitasuna eta autonomia eta ekimen pertsonala.

Zortzi gaitasun horiek derrigorrezko irakaskuntza bukatzean gazte batek eskuratuak izan behar dituen gaitasunak dira, bere burua gauzatu, herritar aktiboa izan, helduaroan modu egokian sartu eta bizitza osoan zehar ikasten segitzeko bidea ematen diotenak. Hauek oinarrizkotzat jotzen dira hauen eskurapena eta ikaskuntza ezinbestekoa delako. Curriculumean zehazten diren arlo eta irakasgaiekin hezkuntza helburuak lor ditzatela lortu nahi da eta beraz horrekin batera ere zortzi gaitasun horiek lortzea. Beraz, arlo bakoitzean oinarrizko gaitasun horiek landuz, ikasleak gaitasun horiek bereganatu ahal izango dituzte.

Oinarrizko konpetentziak garatu dituzten ebaluatzeko helburuz, Lehen Hezkuntzaren bigarren zikloaren amaieran (4. maila) eta Bigarren Hezkuntzaren 2. mailean diagnostiko ebaluazio bat egin dute ikastetxe guztiek. Ebaluazio hauek Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapen zerbitzuak prestatu ditu eta ikastetxean bertan egin dira. Ebaluazio hau prestakuntza mailako eta orientatzailea da ikastetxeentzat, eta informazio mailakoa, familientzat eta hezkuntza-komunitate osoarentzat.

Diagnostiko ebaluazioetan baloratzen da ea ikasleek lortu dituzten curriculumaren oinarrizko gaitasunak eta ikasleek erakutsi behar dute ea gai diren klasean ikasitako aplikatzeko, bizitza errealeko egoerak eta arazoak konpontzeko. Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan, honako probak egiten dituzte: irakurtzeko gaitasuna, idazteko gaitasuna, matematikarako gaitasuna, zientziarako gaitasuna (Bigarren Hezkuntzan), ingelerako gaitasuna eta galdera sortak. Hauetaz gain ikasleen garapen integralari laguntzen dioten ohiturak eta jarrerak ere baloratu egiten dira. 2013-2014 ikasturtetik aurrera berrikuntza bat sartu da proba hauetan eta proba hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei egokitu ahal izango zaie.

Proba hauek Nafarroako ikastetxe guztietan aldi berean egiten dira eta emaitzak maila desberdinetan sailkatzen dira: 1, 2, 3 eta 3+ maila. Ikastetxe bakoitzak lortutako emaitzak informe moduan jasotzen ditu eta txosten baten bitartez tutoreek gurasoak ere informatu egiten dituzte.

Proba hauek orain dela urte batzuetatik lantzen dira eta Nafarroko Departamentuko web-gunean ikasleekin praktikatzeko aurreko urte guztietan Nafarroako ikastetxeetan egindako ereduak daude eskuragai (<http://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/primaria-por-asignaturas>).

Baina orain azaldutako LOE legea hurrengo urtetik aurrera LOMCE legeak aldatuko du. Lege berri honek berarekin aldaketa handiak ekartzen ditu Lehen Hezkuntzan, hala nola: Lehen Hezkuntzak 6 ikasturte izango ditu eta ez 3 ziklo orain arte bezala, Natur Zientziak eta Gizarte Zientziak ikasgaiak bereizi egingo dira eta orain natura, gizarte eta kultura-ingurunearen ezagutzaren ikasgaia izango da, hiritartasun irakasgaia desagertu egingo da, atzerriko hizkuntzei garrantzi gehiago emango zaie, oinarrizko gaitasunen kopurua eta zehaztapena aldatuko da ere... Aldaketa guzti horiekin batera oinarrizko gaitasunen inguruan ere aldaketa nabariak egingo dira.

LOMCE legean zehazten diren oinarrizko zazpi gaitasunak eskuratu diren edo ez zehazteko banakako ebaluazioak egingo dira. LOE-rekin alderatuz kasu honetan 2 momentutan egingo da ebaluazio hori. Lehenik eta behin Lehen Hezkuntzako 3. mailan egingo da. Bertan, ikastetxeak, hizkuntza-gaitasuna eta gaitasun matematikoa neurtzeko ebaluazio bat egingo die 3. mailako ikasle guztiei. Ebaluazio hau gairatzen ez bada, irakasleek erabakiko du zein neurri bereziak ezarriko diren (errepikapena barne). Betiere ikasle bakoitzaren egoera kontuan hartuko da. Neurri hauek talde edo banakako emaitzak hobetzea helburu duten planetan zehaztuko dira. Plan hauekin arazoei aurre egitea saiatuko da, betiere familiarekin lan egiten eta beharrezko hezkuntza babesa izaten.

Egingo den bigarren banakako ebaluazio Lehen Hezkuntzako 6.mailan izango da. Ebaluazio honek ez du eragin akademikorik izango eta ikasle guztiei egingo zaie. Bertan komunikazio gaitasuna, matematika eta zientzia eta teknologiaren oinarrizko gaitasunen menderatzea balioztatuko da eta horrekin batera etapa helburuen lorpena ere ebaluatuko da. Proba hau ikastetxe bakoitzean egingo da eta kanpoko irakasleek zuzenduko dute. Ebaluazio honen irizpideak eta ezaugarriak Estatuak finkatuko ditu eta horren arabera ebaluatuko da. Ebaluazio honetan emaitzak honela adieraziko dira: gutxi (ez

gaindituen kasuan), nahikoa, ongi, oso ongi eta bikain. Ikasle bakoitzak lortu duen maila informe batean adieraziko da eta gurasoei edo tutore legalei emango zaie. Informe hori ikastetxeentzat izaera informatiboa eta orientagarria izango du bai eta irakasle, guraso, legezko tutoreentzat eta ikasleentzako ere. Lortu diren emaitzen arabera Hezkuntza Administrazioek hobetzeko plan ezberdinak egin ahal izango dituzte.

Beraz ikusten den bezala orain arte izan dugun hezkuntza legearen eta berriki martxan jarriko denaren artean berrikuntzak ikusgai dira. Ez bakarrik ezarri egin diren oinarrizko gaitasunen kopuruan, baizik eta horien lanketan eta ebaluazioan ere.

1.4.1. Berrikuntzaren garapena eskolan

“Bikoteka Irakurtzen” programak berrikuntza bat suposatu zuen 2012-2013. ikasturtean Nafarroan. Ikasturte hori Nafarroako ikastetxeetan programa aplikatzen zen lehendabiziko urtea zen beraz dena berria zen. Ikasturte horretan Nafarroako 11 ikastetxek parte hartu zuten, hala nola: Bardenas Reales BHI (Cortes), Cerro de la Cruz (Cortes), San Juan (Lumbier), Atakondoa (Iruztun), Virgen de la Cerca (Andosilla), BHI Alhama (Corella), Mendialdea (Berriozar), Doña Mayor (Iruña), Iturrama (Iruña), Cardenal Ilundain (Iruña) eta San Francisco (Iruña).

Lehendabizi urte horretako esperientzia oso ona izan zen eta 11 ikastetxeek nabari egin zuten aurrera irakurketan. Batzuk 100tik 41 puntu izatetik 62 puntu izatera pasa ziren. Beste batzuk ez zuten horrenbesteko gorakada izan baina guztiek hobetu zuten zerbait. Horregatik, bigarren urte honetan 11 ikastetxe horiek sarean gelditu egin dira eta beste 5 gehiago batu egin dira: Benjamin de Tudela BHI (Tutera), Garces de los Fayos ikastola (Tafalla), San Cermin (Iruña), Pulunpa (Ituren) eta Martin de Azpilicueta (Barasoain). Horrela ba, egun 16 ikastetxek parte hartzen dute programa honetan eta denbora aurrera egin ahala gero eta gehiago izatea espero da.

Ikastetxeetan programa aplikatzeko zenbait pausu eman behar dira. Izan ere horrelako programa bat martxan jartzeko eta bere garapena bermatzeko, beharrezko pausu batzuk eman behar dira. Pausu horien artean programaren

inplementazioa eskolan eta formakuntza saioak aurkitzen dira. Formakuntza saioak 3 izango dira eta urtea aurrera egin ahala garatuko dira. Horretaz gain irakasleriak saio desberdinak antolatu beharko ditu ariketak, bilerak, materiala...prestatzeko ere. Azkenik ebaluazio saio bat ere egingo dute eta bertan programaren balorazioa egingo dute. Ikastetxe guztietan nahiko berdintsua izaten da programaren aplikapena.

Irakurketa dialogikoari dagokionez Nafarroan zehazki lan egiten duten ikastetxeen kopurua ezagutzea nahiko zaila suertatzen da ez delako Gobernuak antolatutako gauza bat. Irakurketa dialogikoa gehiago proiektu bat bezala lantzen da. Kasu honetan ez da behar “Bikoteka Irakurtzen” bezala formakuntza eta formalizazioa. Solasaldi dialogikoak lantzerako orduan nahikoa da denbora, ikasle kopurua eta irakurriko den liburua zehaztea. Ikastetxean liburutegia irakurketa dialogikoa lantzeko eremu bezala ere erabili ahal izango dugu eta bertan heldu, ikasle, gurasoekin... antolatutako solasaldiak egin daitezke. Kasu horretan solasaldi horiek nolakoak izango diren eta norekin antolatuko diren jakin beharko da, ahalik eta probetxu gehien ateratzeko.

2. PLANTEAMENDU ARRAZOITUA

2.1. Metodologiaren egokitasuna horretarako

Aurretik aipatu bezala irakurketa lantzeko metodologia desberdinak daude, baina honetan bereziki “Bikoteka Irakurtzen” programan eta irakurketa dialogikoan zentratuko naiz. Bi metodologia hauek nahiz eta garapen desberdina izan, bata zein bestea oso emaitza onak ematen ari dira eta horregatik ikastetxeetan gero eta gehiago lantzen dira. Bietan lortzen den emaitza esanguratsuenetako bat irakurketaren gaitasunaren hobekuntza da eta bereziki irakurriaren ulermena. Izan ere bi modu hauekin irakurketa lantzen dute baina modu tradizionaletik aldenduz eta beste pertsonekin batera ere. “Bikoteka Irakurtzen” programaren kasuan gainera ikasle tutoratuak zein ikasle tutoreak hobetzen dute, biek irakurketa landu egiten dutelako.

Honetaz gain ikasleek ere beraien motibazioa nabarmenki handitu egiten dute. Izan ere Adarra Pedagogia Elkarteak (2006) egindako jardunaldi batzuetan

argitu duen bezala, besteekin irakurtzeak, hitz egiteak, pentsatzeak, ikasteak eta irakurketa partekatua egiteak ikasleak asko motibatzen ditu. Gainera programa honen bitartez ikasleek ariketa orriak prestatzen dutenean ere asko motibatzen dira beraiek egindako lana praktikara eramaten dutelako (GRAI, 2007). Besteekin irakurtzeak eragiten du ikasleek modu aktibo batean ikatea. Hau da, beraiek dira irakurketa ekintzaren partaide eta beraien inguruan antolatzen da irakurketa.

Bi metodologia hauen bitartez ikasleek talde lanean lan egiten ikasten dute. Izan ere beste pertsonekin irakurtzen egon behar dute (binaka zein talde handiagotan) eta horren ondorioz horrela lan egiten ikasten dute. Talde lan horren bitartez ikasleek beraien gaitasun psikosoziala hobetu egingo dute ere. Honetaz gain “Bikoteka Irakurtzen” programaren bitartez aniztasunari behar bezala erantzuna ematen zaio ikasleek beraien artean dauden desberdintasunei esker ikasten dutelako (Duran, 2011).

Dakigun bezala bi metodologia hauetan familien edo beste helduen parte hartzea sustatzen da. Horrela ba “Bikoteka Irakurtzen” programan eta irakurketa dialogikoan familien parte hartzea bilatuko da. Bigarren horren kasuan familiak ez ezik ikasle, helduen...parte hartzea bilatuko da ere.

Beraz, ikusten den bezala, bi metodologia hauek onura asko dakartzate beraiekin eta hezkuntza edukietan ez ezik beste gaitasun asko ere garatzen laguntzen dute. Horregatik oso gomendagarria da ikaskuntza mota hauetan oinarritzea irakurketa lantzeko.

2.2.Praktikan nola egin

2.2.1.“Bikoteka Irakurtzen” praktikan

“Bikoteka Irakurtzen” programa praktikara eramateko hainbat urrats eman behar dira eta horiek orden eta modu egoki batean egitea oso garrantzitsua izango da programaren arrakastarako. Emango diren urratsak bederatzi izango dira eta bi zatitan banatuak egongo dira: urritik urtarrilera ematen diren pausuak eta bestetik urtarriletik maiatzera emango direnak. Lehenengo epealdian honakoak emango dira: elkarlanean jarduera orriak sortu, familiei eta ikasleei programaren inguruko informazioa ematea eta sustatzea, ikasleen hasierako

ebaluazioa, ikasle eta familia bikoteak egitea eta azkenik familia eta ikasleei formakuntza eskaintzea. Bigarren epealdian honakoak emango dira: “Bikoteka Irakurtzen” saioen gauzatzea, prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa, ikasleek sortutako materiala, ikastetxeei bisita eta ikastetxeko klaustroan esperientziaren aurkezpena (GRAI, 2007).

3. taula. “Bikoteka Irakurtzen” programaren pausuak

Urritik urtarrilera	1.Elkarlanean jarduera orriak sortu.
	2.Familiei eta ikasleei programaren inguruko informazioa eman eta sustatu.
	3. Ikasleen hasierako ebaluazioa. Ikasle eta familia bikoteak egin.
	4.Ikasleen formazioa
Urtarriletik maiatzera	5. “Bikoteka Irakurtzen” saioen gauzatzea.
	6. Prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa.
	7.Ikasleek sortutako materiala.
	8. Ikastetxeei bisita.
	9.Ikastetxeko klaustroan esperientziaren aurkezpena.

Lehenengo pausutzat jarduera orrien eraketa izango dugu. Orri hauek tutore eta tutorizatuaren arteko elkar ekintza egituratzea dute helburu eta saioak antolatzen eta bideratzen lagundu egiten dute. Orri hauek ikaslearen egunerokotik aterako testu erreal bat dauka eta bertan egilea zein den eta nondik hartu den zehazki azaltzen da. Testuen aukeraketa egiterako orduan hiru irizpide kontuan hartu beharko ditugu: testu mota desberdinak izan beharko dira (deskripzioak, narrazioak, instrukzioak, azalpenak...), adinari egokituak izan beharko dute eta ikasleengan interesa eta zentzua piztu beharko dute. Oso garrantzitsua izango da tipologia desberdinetako testuak lantzea irakurketa lantzearekin batera ere testu mota desberdinen ezaugarriak ere ikasiko dituztelako.

Behin eta testua aukeratu jarduera orria atal desberdinetan egituratuko da. Lehenik eta behin irakurri aurretiko atala izango dugu. Bertan galderak egiten dira testuaren ezaugarriak aztertzen laguntzeko (formatua, izenburua, egitura, jatorria...). Era berean, hipotesiak edo iragarpenak egiten dira edukiari buruz eta horrela alde aurretiko ezaguerak aktibatzen dira. Jarraian aukeratutako testua eta ikasleek irakurri beharko dutena aurkituko dugu. Irakurri ondoren irakurriaren ulermenari lotutako galderak edo jarduerak egongo dira eta hainbat formatukoak izango dira: erantzun anitzekoak, osatu beharreko diagramak, kontzeptuko mapak... Jarduera hauek hipotesien inguruko gogoeta egiten lagunduko die eta edukia ulertzen ere. Azkenik, jarduera orriak jarduera osagarri batzuk izango ditu. Hauek elkarrizketak, binaka egin beharreko jarduerak...izango dira eta testuaren ulerkuntzatik abiatuko dira. Aurreko galderekin alderatuz hauek ariketa erakargarriagoak eta dibertigarriagoak izango dira.

Testuak sortu ondoren bigarren pausuari ekingo zaio. Bigarren pausu honetan ikasle eta familiei programaren inguruko informazioa eman beharko zaie eta euren motibazioa piztu beharko da. Horretarako ikasleei programaren abantailak eta zertan datza azaldu beharko zaie eta familiari programaren inguruko informazioa eman beharko zaio.

Hirugarren pausutzat hasierako ebaluazioa eta bikoteen eraketa aurkituko dugu. Ikasle guztiei hasierako ebaluazio bat egingo zaie. Ebaluazio hau hizkuntzaren ezagutza maila kontrolatzeko erabiliko da eta bikoteak egiteko orduan baliagarria izango da ikasle bakoitzaren inguruko informazio asko emango digulako. Bikoteak sortzerako orduan irakasleak kontuan hartu beharko du ikasleak adin edo maila berdinekoa edo desberdinekoak izango diren eta rol aldaketa egongo den edo berdin mantenduko diren. Hori zehaztu ondoren maila bereko ikasleak bikoteetan antolatuko ditu. Betiere bikoteak maila bereko ikasleak osatuko dituzte biak erritmo bera jarrai dezaten. Oso garrantzitsua izango da ere familiako kide bat aukeratzea ikaslearen bikotea izateko "Bikoteka Irakurtzen" programa etxean lantzen denerako. Familiaren inplikazio hori lortzeko eskolak bitartekari bezala egin beharko du eta ahalik eta laguntza gehien eskaini.

Laugarren pausuari dagokionez formakuntza aurkituko dugu. Bikoteka lantzen hasi baino lehen saio batzuk egin beharko dira bikotekideen rola garatzeko beharrezkoak diren oinarrizko trebetasunak lortzeko. Horretarako aurretiko prestakuntza bat egingo dute ikasleek. Prestakuntza hori 3 saiotan banatua egongo da eta helburuak honakoak izango dira: berdinen arteko tutoretzaren oinarriak ikastea, gelako saioak izango dituzten jardueren ezaugarriak ezagutzea, erabiliko diren baliabideak ezagutzea eta bikoteak ezagutzea eta bakoitzaren rola adostu. Familiaren prestakuntzari dagokionez nahikoa izango da saio bat egitea. Bertan programaren azalpen laburra egingo da eta erabiliko diren materialak eta saioen antolaketa azaldu egingo zaie.

Bigarren epealdian sartzean (urtarrila-maiatza) bosgarren pausua aurkituko dugu: "Bikoteka Irakurtzen" saioen garapena. Aurretik azaldu bezala astero 30 minutuko bi saio egiten dira hiru hilabetez. Saio horietan bikoteak elkarrekin eseriko dira (tutorea tutoratuaren ezkerrean) eta jarduera orriak lantzen hasiko dira.

Lehendabiziko 15 minututan aurretiko ariketak egingo dituzte. Hurrengo 15 minututan irakurketari ekingo diote: lehendabizikoa tutoreak egingo du, bigarrena bien artean eta hirugarren tutorizatua tutorearen laguntzarekin (PPP). Ondorengo 15 minutuetan irakurriaren ulermenari lotutako ariketak egingo dira. Saioaren azkeneko minutuak tutoratuak testua azkeneko aldiz irakurriko du. Azkeneko aldi horretan irakurketa sakona egingo da eta testuaren esanahia aurkitzeko balio izango du. Saioaren garapenaren barruan ere bikotearen autoebaluazioa aurkituko da. Autoebaluazioa 15 egunetan behin egingo da eta beste gauza batzuen artean hobetu dutena eta jaso dituzten trebakuntzak aztertuko ditu.

Seigarren pausutzat prozesuaren jarraipena eta ebaluazioa aurkitzen da. Bertan lehen aipatutako hasierako ebaluazioa eta bikoteen autoebaluazioa aurkituko da. Horrekin batera jarraipena egiteko behaketa bikotekideek behaketa orria izango dute eta bertan tutore eta tutorizatuaren inguruko informazioa bilduko da. Ikasle tutoreek egindako jarduera orriak eta familiarik datorren informazioa ere oso erabilgarria izango da. Honekin batera ere ikasleen ikaskuntza zorroa edo karpeta aurkituko dugu eta bertan ikasleen

jarduera orriak egongo dira. Azkenik amaierako proba bat egingo da eta jarraipenerako zein prestakuntzarako balio izango du.

Programa aurrera egin ahal ikasle tutoreari bi jarduera orri sortzeko eskatuko zaio (zazpigarren urratsa). Honen helburua ikaslearen motibazioa eta inplikazioa areagotzea izango da. Lan honetan irakasleria erabakiko du nola lagunduko dute ikaslea. Sortutako bi orrialdeetatik bat aukeratuko da eta gainerako ikaskideekin partekatuko da. Bestea bikotekideak bakarrik erabili ahal izango du.

Programaren garapenarekin bukatzeko ikastetxeen arteko bisitak eta klaustroaren aurreko aurkezpena aurkituko dugu. Lehendabizikoari dagokionez bisita horiek programa garatu bitartean egingo dira eta behaketak eta alderaketak egiteko balio izango dute. Horretaz gain oso erabilgarriak izango dira beste antolaketa modu batzuk ikusteko eta programa egokitzeko edo aldaketak egiteko. Azkeneko pausuari dagokionez, behin eta programa amaituta, komeni da ikastetxean izandako esperientzia gainontzeko irakasleei azaltzea klaustro batean eta gainontzeko irakasleria programan parte hartzera animatzeko.

Ikusi bezala “Bikoteka Irakurtzen” programak pausu desberdinak barne hartzen ditu. Esan beharra dago ere programa hau hizkuntza desberdinetan lantzeko aukera dagoela. Hau da, gela batean programa bera erabili daiteke euskarako irakasgaia zein gaztelaniakoan eta batera lantzen joan. Gainera ikasleei dagokienez normalean asko gustatzen zaie horrela lan egitea eta tutorea eta tutorizatuaren papera betetzea.

Beraz, eman beharreko pausuak behar bezala betetzen badira programaren arrakasta lortuko dugu eta horrela gure ikasleen artean irakurketaren ulermena sustatzeaz gain beste zenbait helburu gehiago lortuko ditugu.

2.2.2. Irakurketa dialogikoa praktikan

Irakurketa dialogikoa elkarrekin hausnartze eta elkarrengandik ikasteko helburua duen irakurketa da betiere partekatutako plazerean oinarrituz. Irakurketa hau sortarazteko ezinbestekoa da hainbat urrats jarraitzea (FAPARM, 2011): lehenik eta behin irakasleriaren formakuntza beharrezkoa

izango da. Formakuntza horretan proiektua nolakoa den ezagutuko dute irakasleek eta honen azterketa egingo dute. Horrekin batera proiektuaren inguruko lehenengo erabakiak hartuko dituzte.

4. taula. Irakurketa dialogikoaren pausuak

1. Irakasleriaren formakuntza.
2. Proiektuaren aurkezpena eta zertan datzan azaldu ikasleei.
3. Irakasleek formakuntzaren eta proiektuaren aurkezpenaren ebaluazioa egin.
4. Irakurriko den lehendabiziko liburua aukeratu eta irakurri beharreko orrialde kopuruak zehaztu.
5. Proiektua martxan jarri.
6. Saio bakoitza amaitzerakoan irakasleak ebaluazioa egin eta irakurri beharreko orriak zehaztu.
7. Liburua irakurtzeaz bukatu.
8. Irakasleriak ebaluazioa egingo du eta nahi izatekotan prozesua berriz ere martxan jarriko da.

Hurrengo urratsa ikasleei proiektuaren aurkezpena egitea izango da. Ikasleei proiektua zertan datzan azalduko zaie: nolakoa den irakurketa era hori eta norbanakoaren iritziak zer garrantzia duen, liburu mota irakurtzearen sustapena, irakurri ondoren zer egin behar duten... Irakurketa mota hau nola burutuko den ere adieraziko zaie: txandak egingo dira, bakoitzak aukeratu duena azalduko du, eztabaidak egingo dira... Horretaz gain ariketaren arauak zeintzuk diren esango zaie ikasleei. Horren ondoren denen artean irakurriko diren liburuak aukeratuko dira, non irakurriko den (eskolan edo etxean) eta saio bakoitzeko zenbat orri irakurri beharko dituzten erabakiko da.

Aurkezpena egin ondoren irakasleek formakuntzaren eta proiektuaren aurkezpenaren inguruko ebaluazioa egin beharko dute. Gero lehen saiorako talde bakoitzak irakurri beharko duen liburua aukeratuko da eta lehenengo saiorako irakurri beharko diren orrien kopurua zehaztuko da.

Aldez aurreko lan horien ondoren, proiektua martxan jarriko da eta irakurketa saioei hasiera emango zaie. Saio horietan ikasle guztiek beren txanda izango dute aukeratutakoa edo idatzitakoa adierazteko ulertu ez dutelako, ados daudelako, atentzioa eman dielako, eta abar. Ikasleren bat saio batean ez baldin badu ezer aukeratzen ez da ezer gertatzen baina kontuz ibili beharko gara askotan ez gertatzeko. Ikasle bakoitzak bere zatiaren azalpena eman ondoren eztabaida edo txanda libreza zabalduko da. Une horretan, guztiek hitz egiten dutela ziurtatu behar da, koaderno batean horren jarraipena eginez, adibidez. Bertan hitz egiteko moduak zaintzeko eskatuko zaie ikasleei. Saioa bukatzeko hurrengo egunerako zenbat orri irakurri beharko dituzten erabakiko da.

Saio bakoitza bukatzerakoan irakasleok horren ebaluazioa egin beharko du eta zerbait garrantzitsua gertatzen bada horren berri eman beharko du. Amaitzeko, lehendabiziko liburua bukatuta irakasleok berriz ere ebaluazioa egingo du proiektu guztia nola joan den ikusteko eta nahi izatekotan proiektua berriz ere martxan jarriko da liburu berri batekin. Jarraitzea aukeratzen bada berriro ere prozesu berarekin jarraitu beharko da.

Kasu honetan, “Bikoteka Irakurtzen” programan bezala, edozein hizkuntzatan landu daitekeen zerbait da. Berdin dio euskarako zein gaztelaniako irakasgaietan lantzea helburua berdina delako batan zein bestean. Proiektuaren garapena ere eremu desberdinetan eman ahal izango da: klasean, liburutegian, patioan... Saio horietan ere senitartekoak edo komunitateko beste eragile batzuek parte hartu ahal izango dute nahi izatekotan. Irakurri ahal daitezkeen liburuak ere genero eta mota desberdinetakoak izan daitezke, adibidez klasikoak.

2.3. Lehen Hezkuntzako 4. mailarako programa proposamena

Orain arte azaldutako metodologia desberdinekin bat etorriz, Lehen Hezkuntzako 4. mailan aplikatzeko material proposamen bat aurkezten da. Material hau “Bikoteka Irakurtzen” programaren garapenean oinarritua dago.

Proposamen honetan testu mota desberdinak aurkitzen dira. Testu horiek 4. mailako ikasleentzat egokiak dira eta horretarako testu horien luzera, interesa...

kontuan hartu da. Horretaz gain, testuak genero desberdinekoak izango dira ikasleek testu mota desberdinak ikasi eta ezagutu dezaten. Horrela ba, testu etenak zein etengabeak aurkituko ditugu.

Testuarekin bakoitzarekin batera aplikazio gida bat egongo da irakasleei laguntzeko asmoz. Gida horretaz testuarekin zer ikusia duten galdera mota desberdinak agertuko dira. Galdera horiek mota desberdinekoak izango dira, hala nola: informazioa berreskuratzeko galderak, ulermen globalari buruzkoa, interpretazioa eta informazioa integratzeko galderak, edukiaren gainean hausnartzeko galderak eta formaren gaineko hausnarketari buruzko galderak. Gida bakoitzak galdera hauek barne hartu beharko ditu gida ahalik eta eraginkorrena eta osatuena izateko.

Horrela ba, Lehen Hezkuntzako 4. mailan aplikatzeko programa proposamen hau 10 testuz osaturik egongo da eta bakoitzak dagokion aplikazio gida izango du. Orain aurkeztuko den fitxa bakoitza eranskinetan dauden testuekin batera landuko da. Hona hemen material proposamena:

- 1 FITXA: *ESNESALTZAILEARENA* (Eranskina 1)

Irakurri aurretik

1. Zer testu mota dela uste duzu?

2. Izenburua irakurrita, zeri buruzkoa izango dela uste duzu? Esne Beltza taldea ezagutzen duzu?

Irakurri ondoren

1. Zein da testuaren ideia nagusia?

- a) Esnea oso garestia da.
- b) Lehen esnea nola saltzen zen azaltzea.
- c) Lehen bere gurasoek esnea nola saltzen zuteneko oroitzapena.

2. Zenbat estrofa desberdintzen dira? Zatiren bat errepikatzen da?

3. Nola joaten zen ama atzean? Zer egiten zuen beti lanean hasi aurretik?

4. Zer esan nahi du “beraiena galduta itzultzen ziren etxera” esaten duenean?

5. Zergatik utzi zioten esnea saltzeari?

6. Abestiaren protagonistari garai haietara bueltatzea gustatuko litzaioke?
Zergatik?

7. Uste duzu lehen etxez-etxe saltzen zen esnea eta gaur-egun edaten duguna
berdina dela? Zergatik?

Ariketa osagarria

1. Behiak nola jezten diren ikusi edo probatu duzu noizbait? Azaldu eta
marrazkia egin.

- 2.FITXA. ARTIKOA URTZEN BERRIA (Eranskina 2)

Irakurri aurretik

1. Zer testu mota dela uste duzu? Nola jakin duzu?
2. Ezagutzen ahal duzu argakian agertzen den hiria? Zein oina jarriko zenioke argazkiari?

Irakurri ondoren

1. Idatzi mapan agertzen diren laukietan zein den Artikoa eta zein Euskal Herria.



2. Zein da berri honen egilea?

3. Artikoa urtzen bada zer gertatuko da?

4. Zer gauzetatik da garrantzitsua Artikoa?

5. Esan egia (E) edo gezurra (G) diren eta gezurra baldin bada esan zergatik:

	a) Klima aldaketak eragin gutxi izango du Euskal Herrian
	b) Euskal Herrian tenperatura altuagoak egongo dira baina euri gehiago egingo du.
	c) Eraginak hasi dira jada.

6. Zein izan da urterik beroena 2013tik baino lehen? Zenbat urte pasa dira bata eta bestearen artean?

Ariketa osagarria

1. Zure ustez, zer egin dezakegu klima aldaketarekin bukatzeko? Azaldu.

- 3.FITXA. *BIZKOTXO ERREZETA*. (Eranskina 3)

Irakurri aurretik

1. Testuaren formari erreparatu. Zer testu mota dela uste duzu?
2. Argazkiari begiratuta, zure etxean egiten baduzu gustatuko zaizula uste ahal duzu? Zergatik?

Irakurri ondoren

1. Almendra bizkotxoa egiteko ze osagaiak erabili behar ditugu? Zerrendatu.

2. Zergatik utzi behar da ordu batzuez hozkailutik kanpo gurina? Azaldu.

3. Zer gomendatzen dute erabiltzea orea egiteko?

4. Zertarako uste duzu botatzen zaiola bizkotxoari legamia?

5. Zer esan nahi esan nahi du orea harrotu?

- a) Orea sartu
- b) Orea igo
- c) Orea atera

6. Almendra beharrean zer beste fruituak jarriko zenizkioke bizkotxoari?

7. Bizkotxoa labetik atera eta gero momentuan jaten hastea gomendagarria da zure ustetan? Zergatik?

Ariketa osagarria

1. Idatzi modu laburrean nolakoa izango litzateke zure bizkotxorik gogokoena. Gero marraztu.

▪ 4.FITXA. *ESKUTITZA* (Eranskina 4)

Irakurri aurretik

1. Formari erreparatuta ze testu mota dela uste duzu?
2. Ze zatiak bereizten dira horrelako testuetan?

Irakurri ondoren

- 1.Nori zuzenduta dago eskutitza? Nork idazten du?

2. Zer adierazi nahi dute eskutitz honen bitartez?

- 3.Esan egia (E) edo gezurra (G) diren eta gezurra izatekotan zuzendu:

	a)Taldea orain dela ute batzuk batu egin zen.
	b)Lokal batean ensaiatzen hasi ziren.
	c)Beldurra ematen die bere musika oso altu entzuteak.

4. Ze leku eskatzen diete instrumentuak gordetzeko?

5. Zure ustetan zuzendariak beraiek eskatzen duten gela eman behar die? Zergatik?

6. Instrumentuak gordetzeko gela lortzen ez badute, zer gertatu ahal zaie?

Ariketa osagarria

1. Imajinatu musika talde bat osatu behar duzula. Ze musika mota joko zenukete? Ze instrumentu egongo ziren? Abeslaririk egon zen? Azaldu.

▪ 5.FITXA. *UDALEKUA* (Eranskina 5)

Irakurri aurretik

1. Non aurki dezakegu horrelako testu mota bat?
2. Zure ustetan zergatik erabiltzen dituzte kolore, letra eta irudi desberdinak?

Irakurri ondoren

1. Nola deitzen da udalekua? Zein lekutan egiten da?

2. Udalekuan honako hizkuntzetan egin ahal da:

- a) Euskeraz eta frantsesez
- b) Gaztelera eta ingeleraz
- c) Euskera eta gaztelera

3. Zerrendatu egin daitezkeen ekintza desberdinak.

4. Osatu esaldietan falta diren hitzak:

- a) Udalekuan _____ plaza eskaintzen dira.
- b) _____ ordaindu behar dira udalekuan parte hartzeko.
- c) Autobusak _____, _____, _____
eta _____ tik ateratzen dira.

5. 10 urte baldin badituzte eta euskerako udalekura abuztuak 21-26ko astean joan nahi baldin badituzte, aukera izango nuke? Zergatik?

6. Zein modu desberdinetan lortu dezakegu informazioa eta egin dezakegu izen-ematea?

7. Eskaintzen diren ekintzak egiteko, zer arropa eraman beharko dugu gure mailetan?

Ariketa osagarria

1. Halako udalekuetan egon ahal zara noizbaitean? Zer gauza egiten zenituzten? Egon ez baldin bazara, asmatu nolakoa izango zen zure udaleku gogokoena.

▪ FITXA 6. GOMAZKO PULTSERAK (Eranskina 6)

Irakurri aurretik

1. Testuaren forma ikusita zer testu mota izango dela uste duzu?
2. Ezaguna egiten zaizu gai hau? Zergatik?

Irakurri ondoren

1. Zure ustetan nork idazten du testua? Nola dakizu?

2. Ze materiala behar dugu pultsera bat egiteko?

3. Idatzi argazki bakoitzaren azpian dagokion esaldia.

- Gero beheko goma igo egiten da.
- Goma bat *zortziaren* forma eginez arropa-pintzan sartzen dugu
- Ondoren beste biak sartzen ditugu arropa-pintzan baina biratu gabe.



4. Pultsera bukatzeko zer egin behar dugu?

- a) Gomekin korapilo bat egin eta hasiera eta bukaera lotu.
- b) Lokailua jarri eta pultsera egiten jarraitu.
- c) Lokailutik azkeneko eta lehendabiziko goma sartu.

5. Pultserak zein formatan egin daitezke? Kolore desberdinak erabili daitezke?

6. Zergatik gomendatzen digute gomak txinatar dendetan erostea?

7. Zenbat gomatxo gehiago daude pakete handian txikian baino? Zenbat gehiago ordaindu behar da poltsa handia erosiz gero?

Irakurri ondoren

1. Altzagako ikasleak bezala zuk ere pultserak egin dituzu? Zenbat egin dituzu? Zein kolore erabili dituzu gehien? Pultserak ez ezik, beste gauza gehiago egin dituzu (eraztunak, animaliak...)? Azaldu laburki.

▪ 7.FITXA. *ILARGIAREN SOINEKOA* (Eranskina 7)

Irakurri aurretik

1.Zein testu mota dela uste duzu? Zergatik?

2.Izenburua irakurrita zeri buruzkoa izango da?

Irakurri ondoren

1.Zeintzuk dira ipuinaren 3 pertsonaiak? Eta pertsonaia nagusia?

2.Zer nahi zuen ilargiak?

3.Zer gertatzen zitzaion ilargiari soinekoa probatzera joaten zenaldi bakoitzean?

4.Aukeratu zergatik geratu zen ilargia soinekorik gabe:

- a) Dirurik ez zuelako ordaintzeko.
- b) Formaz aldatzen delako eta ezin zaiolako soinekoa egin.
- c) Jostunak ez zuelako bere soinekoa egin nahi

5.Idatzi irudi bakoitzaren azpian noiz dagon laurdena, noiz erdia eta noiz osoa.



6.Zer beste izenburu jarriko zenioke ipuinari?

Ariketa osagarria

1.Ilargiaren jostuna izango bazina, ze arroparekin jantziko zenuke? Azaldu eta marraztu.

▪ 8.FITXA. *ARTETAKO ITURBURUA* (Eranskina 8)

Irakurri aurretik

1.Zer bi zati bereizten dira testuan? Nola dakizu?

2.Bisitatu noizbait Artetako Iturburua ? Noiz ?

Irakurri ondoren

1.Iruñetik Artetako Iturburura joan nahi baldin badugu, zenbat kilometro egin beharko ditugu?

2.Zer da Artetako Iturburua? Aukeratu erantzun zuzena:

- a) Iruñatik pasatzen den ibai bat.
- b) Oloibarretik pasatzen den ibaia.
- c) Olo baiaran aurkitzen den akuiferoa.

3.Osatu honako taula:

Galdera	Datua
Noiztik hornitzen du Iruñerria urez?	
Zenbateko ur emaria du?	
Zer distantzitarra dago Egillorko araztegia?	
Zer distantzitarra dago interpretazio zentroa?	

4.Zertarako erabiltzen dira Egillor araztegiaren urak?

5.Interpretazio zentroaren lehendabiziko solairuan zer bost eremu bereizten dira?

6. Bost eremu horiek ordena jarraituz bisitatu nahi baldin badituz, erlojuaren orratzen kontra edo alde egin beharko dut bisita?

7. Imaginatu gurpildun aulkiarekin zaudela eta Artetako Iturburuaren zentroa bisitatu nahi duzula. Aukera izango zenuke? Zergatik?

Irakurri ondoren

1. Badakizu zer den akuifero bat? Begiratu hiztegia edo zure hitzekin idatzi.

- 9.FITXA. *ESPERIMENTUA* (Eranskina 9)

Irakurri aurretik

1. Izenburua eta irudiak ikusita, zer azalduko digute testuan?
2. Marrazkiak ikusita, zer materiala erabiliko dela uste duzu?

Irakurri ondoren

1. Esperimentua egiteko beharrezkoak diren material etxean aurki ditzakegu edo leku bereziren batera joan behar da erosteko? Zergatik?

2. Zer da tximista?

- a) Tximista eguzkiarengatik sortzen den erreflexua da.
- b) Tximista txinparta elektriko erraldoi bat da.
- c) Tximista egun euritsuetan sortzen den txinparta da.

3. Erabili behar dugun plastilina zatia zer egoeratan dago? Solido, likido edo gas?

4. Adierazi egia (E) edo gezurra (G) diren eta gezurra izatekotan zuzendu:

	a) Plastilina poltsaren gainean jarri behar da.
	b) Erretilua plastikozkoa izan behar da.
	c) Metalezko objektu bat hurbilduz gero tximista sortuko da.

5.Nola sortu dugu txinparta elektrikoa esperimentu honetan?

6.Gertatu ahal zaizu noizbait beste pertsona bati edo kotxe bat ukitzea eta “kalanbre” modukoa sentitzea? Azaldu.

Ariketa osagarria

1.Dakigun bezala, tximistak ekaitzak daudenean ikusten dira gehien bat. Gertatu zaizu noizbatean etxean bakarrik egotea eta ekaitza egotea? Beldurra ematen dizute ekaitzak? Zergatik? Azaldu.

- 10.FITXA. IRUÑEKO MARATOIA (Eranskina 10)

Irakurri aurretik

- 1.Testu honetan zatirik bereizten ahal dira?
- 2.Zure ustez non aurki dezakegun testu hau?

Irakurri ondoren

- 1.Osatu ondorengo taula:

	Prezioa	Inskripzio data	Partaide kopuru maximoa
Maratoi erdia			
Iruña herria lasterketa			

- 2.Zein kasutan bakarrik onartuko dira inskripzioak maiatzaren 10ean?

- 3.Zer esan nahi du “sariak ez dira gehigarriak” esaldiak?

- a) Ezin dira saririk jaso.
- b) Ezin da sari bat baino gehiago jaso.
- c) Sariak ez dituzte punturik ematen.

- 4.Senior lasterketan bigarrena heltzen banaiz zenbat sari jasoko ditut?

- 5.Orain 14 urte baldin badituzte partaidetza libredu dut? Zergatik?

6. Esan egia (E) edo gezurra (G) diren eta gezurra izatekotan zuzendu:

	a) Dorsalaren jasotzea maiatzaren 10ean egingo da "El Corte Inglesen".
	b) Iruñakoak ez diren lasterkariak egunean bertan jaso dezakete dorsala.

Ariketa osagarriak

1. Ezagutzen ahal dituzu zure herrian edo inguruan egiten diren halako lasterketak? Galdetu edo bilatu interneten horren inguruko informazioa.

CONCLUSIONES

Los programas analizados están basados en la mejora de la lectura y cabe destacar la potencialidad de programas como “Leemos en pareja” o la lectura dialógica.

El correcto funcionamiento de los programas está basado en la formación del profesorado, alumnado y familias. Dicha formación estará constituida por los siguientes elementos: introducción al programa, modo de trabajo y desarrollo del mismo.

Estos programas ayudan tanto al profesorado como al alumnado. A estos últimos les ayuda a mejorar la comprensión lectora, la fluidez a la hora de leer y el autoconcepto del lector. Además de lo mencionado anteriormente, aprenden a trabajar en grupo y aumentan su motivación y autoestima.

En cuanto al profesorado, programas como estos le ayudan a gestionar las diferencias entre alumnos y alumnas, es decir, aprovechan esas diferencias para que el alumnado aprenda de ellas. Además, gracias a esto, el profesorado deja de ser el centro de la enseñanza para que sean los propios alumnos y alumnas quienes tomen la iniciativa. El profesorado será también quien deba abrir vías de participación familiar.

En los programas estudiados la participación de las familias debe ser algo muy importante porque ayudan a enriquecer el desarrollo curricular de sus hijos e hijas. Todo ello ayudará a la mejora de la relación entre escuela y familia.

Sin embargo, en el caso de familias que tienen una comprensión lectora con menor nivel, esa participación deberá ser ponderada. Por ello, la escuela debe realizar un esfuerzo para que todas las familias participen en el programa y así poder beneficiarse todos de él.

Por último, teniendo en cuenta los resultados de la aplicación de estos programas, sería conveniente extender la utilización de estos a todos los centros y niveles educativos.

ERREFERENTZIAK

Adarra Pedagogia Erakundea. (2006). *Irakurketa dialogikoari buruzko jardunaldien ondorioak*. Bilbo: egilea.

Aubert, A. (2008). *Aprendizaje dialógico en la sociedad de información*. Barcelona: Hipatia.

Cuetos, F. (2010). *Psicología de la lectura*. Madrid: Wolters Kluwer.

Durán, D.; Blanch, S.; Fernández, M.; Flores, M.; Kerejeta, B.; Lidón, M.; Valdebenito, V. (2011). *Bikoteka Irakurtzen. Berdinen arteko tutoretza-programa, ikasle eta familiekin irakurtzeko gaitasuna hobetzeko*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Durán, D.; Vidal, V. (2004). *Tutoría entre iguales: de la teoría a la práctica: Un método de aprendizaje cooperativo para la diversidad en secundaria*. Barcelona: Graó.

FAPARM. (2011). *Las tertulias literarias dialogicas en la educación primaria para la animación a la lectura*. Recuperado de http://faparm.es//index.php?option=com_content&view=article&id=326:las-tertulias-dialogicas-en-la-educacion-primaria-para-la-animacion-a-la-lectura&catid=47:experiencias-de-centros-y-ampas-sobre-el-fomento-d&Itemid=62

GRAI. (2007). *Leemos en pareja, un programa de tutoría entre iguales, con alumnos y familias, para la mejora lectora*. Recuperado de <http://lenguatokialai.files.wordpress.com/2012/02/leemos-en-pareja-duran-2007-3.pdf>

Instituto de Evaluación (2010). *La lectura en PISA 2009: Marcos y pruebas de la evaluación*. Madrid: Secretaria General Técnica del Ministerio de Educación.

Instituto Nacional de Evaluación Educativa (2013). *PISA 2012 Programa para la Evaluación Internacional de los Alumnos: Informe Español. Volumen I Resultados y contexto*. Madrid: Instituto Nacional de Evaluación Educativa (INEE).

Iza, L. (2007). *Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan*. Iruña: Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua.

Johnson, D.; Johnson, R.; Holubec, E. J. (1999). *El aprendizaje cooperativo en el aula*. Buenos Aires: Paidós.

Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentua. (2007). *Lehen Hezkuntzako Curriculum: I liburukia*. Iruña: egilea.

Pujolas, P. (2008). Agrupamiento heterogéneo del alumnado y atención a la diversidad: La estructura cooperativa de la actividad en el aula. *Revista Perspectiva Escolar*, 324.

Pujolas, P. (2008). El aprendizaje cooperativo como recurso y como contenido. *Innovación educativa*, 37-41, 1(170).

Solé, I. (1992). *Estrategias de lectura*. Barcelona: Graó.

ERANSKINAK

- ERANSKINA 1

Esn saltzailearena (Esne-Beltza)

Akordatzen naiz txikitan
Oraindik lotan nintzela
Aita goizeko bostetan
Behiak jezten hasten zela
Ama ondoan zeukala
Amak laguntzen zuela
etxez etxe aritzeko
esne saltzaile bezala.

Kuatrolatas zahar batean
aita aurrean gidari
ama atzean joaten zen
esne marmiten zaindari
Amak ez zion, ordea,
Inoiz ekiten lanari
muxutxo bat eman gabe
bere seme bakoitzari.

Etxez etxe tinbre joka
portaletik portalera
Kaixo, egun on, zer moduz?
kortesiazko galdera!
irribarre bat eskainiz
esnearekin batera
eta beraiena galduta
itzultzten ziren etxera.

Lege berrien sartzeak
belztu zien bekokia
esne saltzaile langintza
ez omen zen egokia
Tetrabrikak hartu zuen
esne marmiten tokia
eta pena da garai haiek
akordatzen egotea !

<http://www.youtube.com/watch?v=KC46y9uzKXA>

▪ ERANSKINA 2

INGURUMENA

Artikoa urtzearen eraginak, etxean bertan

Greenpeacek ohartarazi du uste baino azkarrago ari dela berotzen Artikoa, eta eragina iritsiko dela Euskal Herrira ere. Donostia jarri du adibide: urpean legoke Kontxa ingurua.



Garikoitz Goikoetxea 2014-04-22 - 16:43:47

Urrun dago Artikoa, eta izotzak urtea kanpoko arazo gisara ikusten da. "Urtzea albiste txarra da Artikoarentzat, baina ez harentzat soilik: Artikoan gertatzen dena ez da Artikoan geratuko". Eragina mundu osora iritsiko dela ohartarazi du Greenpeace talde ekologistak. Euskal Herrira ere bai: itsas mailak gora egingo du izotza urtzearekin batera.

Donostiako adibidea jarri du Greenpeacek. Bi argazki, aurrez aurre: oraingoa bat, Kontxako badia eta Alderdi Eder ingurua bare-bare ageri dituena; bestea hemendik urte batzuetara ikus litekeena, Alderdi Eder ingurua bera ere urpean lukeena.

Artikoak mundu osoarentzat duen garrantziaz ohartarazi nahi du, gisa horretara, Greenpeacek: eguzki izpietatik babesten du izotzak planeta, klima erregulatzen du, berotegi efektua sortzen duten gasak atxikitzen ditu... Artikoa urtzeak, hortaz, berotegi efektua azkartu egingo lukeela azaldu dute.

Muturreko klimarantz

Egungo norabidea aldatu ezik, kutsadura mugatu ezik, eragin handiak izango dira Euskal Herriko kliman ere: tenperatura altuagoak, euri gutxiago, denborale gehiago... Eraginak dagoeneko hasiak direla ohartarazi du Greenpeacek. Eta ez dira iragarpenak, egitateak baizik: mundu osoan, 2013a izan da urterik beroena 1850etik.

http://www.berria.info/albisteak/91163/artikoa_urtzearen_eraginak_etxean_bertan.htm

▪ ERANSKINA 3

Arbendol edo almendra bizkotxo

Osagaiak

- 165 g gurin
- 215 g azukre
- Limoi baten azal birrindua
- Gatz zimiko bat
- Almendra hautsa, 90 g
- Legamia hauts pixar bat
- 150 g irin
- 2 arrautza



Errezeta

Gurina jo. Beraztua gelditu behar du, krema balitz bezala. Horretarako, bizkotxo egiten hasi baino lehen, ordu batzuek hozkailutik kanpo edukitzea duzu hoberena. Azukrea gehitu gurina jo eta gero. Gero gehitu limoi azal birrindua, gatz zimiko bat, almendra ehoa eta legamia. Nahasi dena, baina sobera eragin gabe, nahasi baizik ez. Orduan irina eta arrautzak gehitzen joan, hiru txandatan, poliki, baina ongi-ongi nahasiz. Orea egiteko hobe duzu hagaxkak erabili beharrean zurezko zalia erabili.

Moldea urinez eta irinez igurtzi eta gero, bertan almendra xerra txigortuen geruza polita paratuko dugu, bizkotxo moldetik ateratzen dugunean almendraz estalia gelditu dadin. Orea isuri moldean eta labean eduki 180 graduan, 25en bat minutuz, orea harrotu eta bizkotxo ongi egosten ari dela ikusten dugun arte. Moldetik atera eta almendra xerrak goian direla aurkeztuko dugu.

<http://sukaldean.com/errezetak/715/arbendol-edo-almendra-bizkotxo>

(Moldatua)

▪ ERANSKINA 4

Zornotza, 2013ko martxoaren 14a

Zuzendari: _____ jauna:
Eskutitz honen bidez adierazi nahi dizut egun hauetan Zornotzako musikari
gazteen _____ taldeak _____ daukan _____ arazoa _____ kezkarria.

Badira jadanik pare bat hilabete Zornotzako gazte musikari batzuk batu egin ginela musika talde bat osatzeko, horretarako lokal bat aurkitu genuen bertan jo eta abestiak ensaiatzeko, baina beldur handia ematen digu gure musika tresnak bertan uztea, han seguritate gutxi dagoelako eta musika tresnak oso baliogarriak eta diru asko balio dutelako. Gainera musika tresnak etxera eraman eta ekarri ezin ditugunez kasu askotan, asko pisatzen dutelako edo lekurik ez daukagulako leku segururen bat behar dugu haientzako.

Hau dela eta zera eskatu nahi dizugu: gure musika tresnentzat gela edo txoko segururen bat uztea Zelaieta zentroan, gutxienez guk beste leku seguruagoren bat aurkitu arte. Adibidez, jakin izan dugunez badago Zelaieta zentroan garbitzaileentzako erreserbatuta dagoen gela bat baina beraiek erabiltzen ez dutena eta beraz hutsik dagoena. Guri oso ondo etorriko zitzaigun gela hori edo antzerako bat. Gainera, berez ez dugu leku asko okupatuko, instrumentuak gordetzeko bakarrik delako eta ez bertan ensaiatzeko.

Besterik gabe eta zure erantzunaren zain, eskerrik asko eta hurrengora arte,

Zornotzako musikari gazteen taldea

<http://itziarirakulis.blogspot.com.es/2013/05/gutuna.html>

▪ ERANSKINA 5

ESPELEOLOGIA
ABENTURA PARKEA
BAZTAN ABENTURA PARK
TAILERRAK...

2.200 plaza

Adinak:
7-11 urte
12-14 urte

Prezioa:
242€*

“MULTIABENTURA” 2014
Udalekuak BAZTAN-BERTIZ.
(Nafarroa)

AUTOBUSA IRUÑA, GASTEIZ, BILBO eta DONOSTIATIK

ARROILAK

ARKU JAURTIKETA

PIRAGUA

TIROLINA

ROKODROMOA

MENDI IBILALDIK

EUSKERA (+ INGELESA*)
Ekainak 22-27
Uztailak 2-7
Uztailak 7-12
Uztailak 12-17
Uztailak 17-22
Uztailak 22-27
Uztailak 27-Abuztuak 1
Abuztuak 1-6
Abuztuak 6-11
Abuztuak 11-16
Abuztuak 16-21
*Abuztuak 21-26

GAZTELERA (+ INGELESA*)
Ekainak 23-28
Ekainak 28-uztailak 3
Uztailak 3-8
Abuztuak 12-17
Abuztuak 17-22
*Abuztuak 22-27

*Udalekuko zenbait ekintza ingelesez egingo dira hurrek ingelesa modu dibertigarri batean ikasi dezaten.
*Abuztuak 21-26 ko tanda (euskaraz) eta 22-27 tanda (gaztekeraz) 15-17 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude eta gainontzeko txanda guztiak 7-14 urte bitartekoei.

* Sartzeko da: Garraioa Iruña, Gasteiz, Bilbo eta Donostiatik (gutxienezko taldea 20 hiri bakoitzatik), barne desplazamenduak, ostalua aterpe edo lehen mailako kanpenean, 5 pentsio oso, aisialdiko begiraleak, ekintzetako begiraleak, ekintzak material guztiarekin, R.C. eta Asistentzia aseguruak.

Ekintzak: Arroil jeitsiera (hastapenekoak), Piragua, Arkua, Abentura parkea, Rokodromoa, Tirolinak, Espeleologia, Mendi ateraldiak, Tailerrak, Baztan Abentura Park...

Antolatzailea:

Navarra Aventura  Nafarroa Abentura

Informazioa eta izen-emateak: 948 59 23 22 / 659 08 14 31
bkz@navarraaventura.com
www.navarraaventura.com

▪ ERANSKINA 6

Gomazko pultserak

Altzaga Ikastolan gomazko pultserak modan daude. Patioan neska-mutilak pultserak egiten ikusten ditugu. Jendea ikasten ari da. Klaseko gehienok badakizkigu egiten eta oparitzen ditugu. Hemen azaltzen dugu nola egin. Ea gustatzen zaizuen.



Nola egiten dira

- **Materiala**
 - Koloretako goma txikiak
 - Lotura gardenak
 - Gantxiloa
 - Arropa pintza edo bi bolaluma

Prozedura: Galburu forma egiteko.

1. Lehenengo hiru goma hartu behar dituzu. Goma bat *zortziaren* forma eginez arropa-pintzan sartzen dugu. Ondoren beste biak sartzen ditugu arropa-pintzan baina biratu gabe. Gero beheko goma igo egiten da.
2. Laugarren goma bat hartzen dugu eta pintzan sartzen dugu eta igotzen dugu azpiko goma.
3. Bosgarren goma sartzen dugu pintzan eta azpikoa igotzen dugu gainetik. Horrela jarraitzen dugu nahi dugun luzera lortu arte.
4. Amaitzeko lehenengo gomatik lokailua sartzen dugu. Gero azken gomatik berdina sartzen dugu eta horrela gure pultsera lotzen dugu.

Forma desberdinak

Forma desberdinetakoak egin daitezke, galburu formakoak, V formakoak, kateak eginez... Kolore desberdinak konbinatuz, ostadar koloreak erabiliz...



Non erosi materiala

Gomak txinatar dendetan eros ditzakezue, gure ustez merkeagoak dira. Pakete batek 0,90 € balio du, bertan 150 gomatxo datoz. Badaude pakete handiagoak, 500 gomatxo dituen paketeak 2,20€ balio du.

<http://ondiz33.blogspot.com.es/2014/03/gomazko-pultserak.html> (Moldatua)

▪ ERANSKINA 7

Ilargiaren soinekoa

Behin batean Ilargiak, amarengana hurbildu eta, hauxe esan zion:

- *"Aizu, amatxo, soineko bat eduki nahi dut. Lurreko biztanleek erabiltzen dituztenak bezalako soineko bat eduki nahi dut".*

- *"Ongi da, alabatxo -erantzun zion amak- Zoaz jostunarengana eta esaiozu neurriak hartzeko".*

Joan zen, bada, Ilargia jostunaren etxera. Hark neurriak hartu zizkion eta handik bost egunera itzultzeko eskatu zion. Bost egun igarota, han joan zen Ilargia jostunaren etxera lasterka bizian. Soinekoa janzen hasi zen baina ezin: laburregi eta estuegi zeukan.

- *"Dirudenez, erratu egin naiz"*, pentsatu zuen jostunak bere arterako, eta neurriak hartu zizkion berriro.

- *"Itzuli bost egun barru"*- esan zion Ilargiari.

Ilargia bost egun geroago itzuli zen, soinekoa jantzi eta berriro gauza bera gertatu zitzaion: laburregi eta estuegi zeukan.

Jostunak berriz ere neurriak hartu, handik bost egunera itzultzeko eskatu eta, beste barik, lanari ekin zion. Bost egun haiek igaro ziren. Jostunak soinekoa amaitu zuen baina Ilargia bere etxera sartzen ikusi zuenean..... ez zuen jantzi beharrik izan: bazekien ez zuela sekula ondo edukiko, une hartan Ilargia gazta bezain biribila baitzen.

Jostuna etsita zegoen erabat:

-*"Ezin dizut soinekorik egin, Ilargi, orain laurdena, gero erdia eta ondoren osoa zaudelako. Neurri asko hartu arren inoiz ez duzu soinekoa ondo edukiko".*

Horrexegatik geratu zen Ilargia soinekorik gabe eta horrexegatik dago oraindik ere biluzik.

Dena dela Ilargia, soinekoarekin edo gabe, beti eder.

<http://www.teatro-testuak.com/ipuinak/54ilargia.html>

ERANSKINA 8

Artetako Iturburua

Artetako iturburua edo iturbegia Ollolibarren dago, Iruñetik 30 kilometrora. Andia mendiaren barnean dagoen akuiferoaren irteera naturaletako bat da. 100 bat km²-ko azaleran erortzen den ura pilatzen da akuifero horretan.

1895etik, iturburuak Iruñerria hornitzen du urez. Gaur egun, kontsumitzen duen uraren kasik erdia ematen dio; 550 l/s-ko emaria, iturburutik 6 kilometrora dagoen Egilorko Edateko Uren Araztegiraino bideratzen dena. Gainera, bertako urak baliatzen dira Udarbe erreka elikatu eta energia elektrikoa ekoizteko.

Iturburutik 100 metrora Lurpeko uren informazio eta sentiberatze zentroa dago; garai batean Guardetxea zen, baina gaur egun ingurumen jarduerari buruzko zentro gisa zabarberritu da.



Lurpeko uren informazio eta sentiberatze zentroa hainbat baliabide eskaintzen dizkie bisitariei Artetako iturburuaren, Urbasa-Andia mendien eta Ollolibarren historia geologikoa eta ezaugarriak modu erakargarrian ezagutzeko, honako hauek, besteak beste: erakusketak, maketak, ikus-entzunezkoak eta joko interaktiboak.

Urak eta denborak haitzetan eragindako lanari lotutako historia bat. Gure erantzukizunari egindako deia, bere etorkizuna ziurtatzeari begira.

Beheko solairua

Erabilera anitz eta proiektzioak egiteko aretoa; bertan prestakuntza jarduerak eta tailerrak egiten dira, baita ikus-entzunezkoak proiektatu ere.

Lehen solairua

Artetako iturburua eta lurpeko urak erakusketak bisitariei laguntzen die honako hauek guztiak ulertzen: kareharriak nola osatu diren, mendiko eraketa karstikoa, Olloko diapiroaren bilakaera, eta Artetako iturburuaren sorrera.



Ahalmen-
arritasuna duten
pertsonek zako
sarbidea
kanpoaldeko
igogailutik



- 1 Urbasa-Andia mendiak eta Ollolibar
- 2 Urbasa-Andia mendietako karsta
- 3 Artetako iturburua
- 4 Tratamendua, hornidura eta hiri-zikloa
- 5 Ura dastatzea

▪ ERANSKINA 9

Tximista etxean

2011/05/27 Arantxa Txintxurreta



Txinparta elektriko erraldoiak dira tximistak. Hodei handietan sortzen dira, eta hodei batetik bestera bidaiatzen dute. Batzuetan, Lurrera iristen zaizkigu.

Tximista txiki bat sortuko dugu etxean. Horretarako, hauek **BEHAR DITUZU**: plastilina-zati bat, metalezko erretilu bat (labekoa, adibidez), zabor-poltsa handi bat eta metalezko objekturen bat.



NOLA SORTU TXIMISTA?

Plastilina tinko itsatsi erretiluaren erdian.



Plastikozko poltsaren gainean ipini erretilua, eta, plastilinatik helduta duzula, indarrez igurtzi poltsaren kontra.



Metalezko objektu bat erretiluari hurbildu, eta... tximista txiki bat ikusiko duzu! Gela ilun badago, errazago ikusiko duzu.

ZER GERTATU DA?

Ekaitza baino lehen, hodeietan elektrizitate estatikoa sortzen da. Esperimentu honetan, zuk elektrizitate-mota hori sortu duzu, bi metalen artean. Nahikoa elektrizitate estatiko dagoenean, txinparta sortzen da. Horixe da tximista!

http://www.zernola.net/artikuluak_irakurri.asp?Egoera=LINKS

▪ **ERANSKINA 10**

IRUÑEKO MARATOI ERDIKO XXXIII EDIZIOA

Inskripzioak eta prezioa :

-Maratoi erdia: 18€ martxoaren 25tik maiatzak 9 arte

-Iruñea herria / Lasterketa: 12€ martxoaren 25tik maiatzak 9 arte

Izen-emateko epea bukatu bada eta dorsalak egongo balira, izen-emateak onartuko lirateke maiatzaren 10an Iruñako merkatalgunean- EROSKI

Maratoi Erdian partaide kopuru **maximoa 1200** lagunekoa izango da.

Herri Lasterketan partaide kopuru **maximoa 500** lagunekoa izango da.

Sariak:

Senior eta beteranoak

- Garaikurrak kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuentzat
- Senior irabazleentzat txapela.
- Sariak ez dira gehigarriak.

Reyno Gourmeten eskuz oroigarri bat jasoko dute kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuak.

Maiatzaren 9an izen emandako guztiek zozketa batzuetan sartuko dira eta dorsalen jasoketan banatuko dira. Web gune honetan irabazleak agertuko dira.

Partaidatzea librea da, 1998an eta aurretik jaiotakoentzat.

Dorsalaren jasotzea:

Maiatzaren 10an Iruña Merkatalgunean (Eroskin)

Ordutegia: 10etatik 14etara eta 16etatik 20:30etara

Iruñakoak ez diren pertsonak beren dortsala igandean jaso dezakete 07:45etatik 8:30ak arte Larrabide estadioan.

<http://www.lamediadepamplona.com/> (Moldatua)

